

Hori neuk ere egingo nuke esaten duenak, gauza asko esaten ditu esaldi bakar batean, eta ez garrantzirik gabeak, berehala eta edonola baztertzekoak. Hori esaten duenak, erakutsi (edo ikustarazi) dioten Artelana ukatu egiten du. Eta ez da harritzekoa. Artelanak ere ukatu egiten du bera. Artelana gurtu beharreko irudia bilakatu baita Guggenheim osteko garaiotan. Eta Artea, gurtu beharreko Forma.

Forma ikasgaia zen Arte Ederretan.

Forma da ikasgaia beti

Hori neuk ere egingo nuke esaten duenak, Forma ukatzen du, ez forma. Ukatzen duena, berak ere egin zezakeen forma Artelan bihurtu duen Forma da, eta ukatuz galdetzen duena, berriz, beste hau: zergatik da hori Artea? Lewis Carrollek ongi asko zekien bezala, kontua ez baita hitzek zer esan nahi duten, nork agintzen duen baizik.

Witold Gombrowiczek ere ederto zekien hori, eta bere Ferdýdurke nobelan hankaz gora bota nahi izan zituen erabat onartuak eta zabalduak zeuden (eta dauden) usteak.

“Zein da, orduan –galdetuko duzue, ausaz-, behar dugun kontzepzioa gure errealitatearekin egokiagoa den moduan, arrazoizkoagoa eta aldi berean burujabeagoa den eran espresatu ahal izateko?”

Lehenik eta behin, ondoko hitz honekikoak moztu itzazue errotik: Artea; eta baita beste honekikoak ere: artista. Ez zaitezte gehiago murgildu eternitatearen monotoniaz errepikatzen dituzuen hitz horietan. Ez al da egia handiagoa izango norbera artista dela? Ez al da izango gizateriak Artea sortzen duela ez bakarrik paperean edo oihalaren gainean, baizik eta eguneroko bizitzaren une orotan? Dontzeilak arrosa bat paratzen duenean, solas mamitsu batean txiste irrigarri bat isurtzen denean, norbaitek arrastiriari aitortpenak egitean, horixe guztia Artea baizik ez da. Zertarako, orduan, banaketa izugarri hau: A, ni artista naiz, nik Artea sortzen dut. Ez al da komenigarriagoa beste hau esatea, soiltasunez: Ni, agian, Arteaz kezkatzen naiz eta Arteaz jarduten dut besteek baino apurtxo bat gehiago.

Eta bigarrenik, zergatik kultu hori, miresmen hori, “obrak” deitzen ditugun horietan adierazten den arte horren aurrean? Nondik atera duzue gizonak Arte obrak biziki miresten dituelako ideia inozo hori, Beethovenen sinfonia bat entzutean konortea galdu eta plazer-ikaraz hiltzen garelako hori? Sekula ez duzue pentsatu zein ezpuru, nahasi eta zorrozki heldugabea den kulturaren eremu hau, zuen fraseologia errazaren barruan zedarritu nahi duzuen? Behin eta berriz egiten duzuen akatsa honako hau da, batez ere: pertsonaren eta Artearen arteko harremana emozio estetiko baizik ez dela pentsatzea, uste izanez, gainera, harreman hori guztiz partikularra eta bakarkakoa dela, alegia, bakoitzak harreman hori erabateko bakardadean biziko balu bezala, beste gainerako gizakiengandik bereizirik. Baina, egia esan, harreman horren arragoan hainbat eta hainbat emozio desberdin nahasten dira, eta emozio horiek biderkatzen dira, hainbat eta hainbat pertsona desberdinek hartzen dutelako parte, eta pertsona horiek elkarri eragiten diotelako eta elkar sujestionatzen dutelako, taldeko arima-egoerak sorraraziz.”

Adibide donostiar bat emateko:zenbat jende ikusi duzue Victoria Eugeniako kontzertu batean, emozio estetiko bortitzak jota konortea galdu eta plazer-ikaraz hiltzen?

“Horrela, pianistak Chopin zurratzen duenean oholtza gainean, hauxe esaten duzue: Chopinen musikaren xarmak, pianista handiaren interpretazio jeniala tarteko, entzuleak liluratu eta mirestu zituen. Egia esan, oso litekeena da entzuleetatik ia bakar bat ere mirestua ez egotea. Oso litekeena da ezen, jakin izan ez balute Chopin jenio handia zela, eta pianista hura lehen mailako pianista zela, gauza xarma gutxiagorekin jasoko zela. Oso litekeena da, baita ere, entzuleetako bakoitzak, entusiasmoak zurbildurik, gorputza bihurrituz txalo eta oihu egiten badu, hori gertatzea besteek ere gorputza bihurrituz txalo egiten dutelako; entzuleetako bakoitzak uste duelako aldamenekoa gozamen neurrigabe bat bizitzen ari dela, lur honetakoa ez den zirrara bat, eta horregatik norbera ere hasten da gozamen-aztarnak erakusten; eta horregatik oso litekeena da aretoan inor ez egotea berehala eta zuzen liluraturik; et hala ere, denak ari dira muturreko lilura baten arrastoak erakusten, norbera aldamenekoaren kanpo-adierazpenari egokitzen zaiolako. Eta orduan, denek, taldean, esku-zarta, oihu, aztoramendu eta laudorioen bidez elkar kitzikatu eta eragin dutenean, orduan bakarrik, beren adierazpen horiek beroriek sortuko dute eurengan gozamen eta miresmen sentimendua; gure sentimenduak gure adierazpenekin bat etorrarazi behar ditugulako. Eta egia da, baita ere, musika hori entzutean ekitaldi erlijioso eta erritual bezalako bat burutzen dugula; eta meza santuan urrikalkor eta belauniko parte hartzen dugun moduan, horrelaxe hartzen dugu parte Chopinen kontzertu batean, edertasunaren jainkoaren aurrean belauniko; eta gure miresmenezko ekitaldi hau omenaldi formal bat baizik ez da. Nork esan lezake, hala ere, edertasun horretan, zer den benetan eder, eta zer prozesu historiko-soziologiko baten emaitza?”

Eta adibide donostiarrarekin jarraituz: zenbat jende ikusi duzue kontzertua bukatutakoan txalo zaparrada luze eta beroa eskaintzen, batez ere, interpretea edo musikoa oso ezaguna zenean, sarrerak gutxi eta garestiak, eta jende inportantea (OPI ugari) zegoenean publikoaren artean?

Horretaz guztiaz futitzen da “hori neuk ere egingo nuke” esaten duena.

Horregatik, neuk ere egingo nituzkeen baina egin ez ditudan formak erakutsiko ditut lau egun hauetan, beti ere gogoan izanda, ikusleak ere egiten duela, osatzen duela, begien aurrean daukan forma hori.

Eta erabat kapritxosoa den sailkapen bat eginez, honela banatuko dira lau egun hauek:

Martxoak 6: Hizkiak, hitzak, esaldiak. Joan Brossaren poesia.

Martxoak 13: Nola kontatzen ditu ipuinak Sophie Callek?

Apirilak 3: Goierri Konpeti. Identitatearen nobela.

Apirilak 10: Camembert helburu. Zeinek esaten du saiakera aspergarria dela?